



ENPRESAK SORTZEKO ETA MARTXAN JARTZEKO LAGUNTZAK 2018




Bilbo, 2018ko uztailaren 6a

Elkarkide agurgarria,

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna sustatzeko sailak, 2018 Enpresak sortzeko eta martxan jartzeko laguntzak abian jarri ditu.

XEDEA: 2017ko irailaren 16tik 2018ko irailaren 14ra bitartean (biak barne) sortutako enpresei lehen urtean beren jarduera abian jartzeko laguntzak.

ONURADUNAK: Bizkaiko Lurralde Historikoko nortasun juridikoko enpresek, euren izaera juridikoa edozein delarik, (banakako enpresaburuak eta profesionalak barne), ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek. Baldintzak:

-  2017/09/16tik 2018/09/14ra (biak barne) bitartean ekonomi jardueretan alta ematea.
-  Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. Lantokia ere lurralde horretan izatea.
-  Erakunde onuraduneko **pertsona sustatzaile** batek gutxienez egiaztatu behar ditu:
 - Ekonomia-jardueretan alta eman aurretik, egiaztatzea ohiko bizilekua Bizkaian izan duela hiru hilabetez, gutxienez, etenik gabe.
 - Ekonomia-jardueretan alta eman aurreko berehalako datan langabezian egon izana egiaztatzea.
 - 2017/09/16tik 2018/09/14ra bitarteko epean langile autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualitatearen batean alta emanda egotea. Azken baldintza hori ez zaie eskatuko elkartutako langile-kooperatibei, ezta lan-sozietateetako langileei ere, baldin eta araubide orokorrean sartuta badaude.
 - 39/2018 Dekretuaren 1. Atalean zehaztutako prestakuntza eta banan-banako aholkularitza egina izatea.

DIRU LAGUNTZAZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK: Sortutako enpresei lehen urtean beren jarduera abian jartzeko gastuak.

JUSTIFIKAZIOA: Justifikazioa egingo da, zelan eta Gizarte Segurantzarekiko kotizazioak —autonomoen araubide berezian edo mutualitate baliokidean egindakoak— ordaindu direla egiaztatzen duten frogagiriak ekarriz; betiere, agiriok sortuak izan behar dute urtebeteko epealdian zehar, gehienez, Ekonomia Jardueren altatik zenbatuta. Halaber, onuradunak ogasunarekin dagozkion betebeharrak fiskalak betetzen ote dituen egiaztatuko da.

DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: Entitate onuradunak, gutxienez, **5.000 euro**

+ **2.000 euro** aipatutako atalean zehaztutako baldintzak betetzen dituen eta, aurreko paragrafokoa ez den, pertsona sustatzaile bakoitzeko. Kasu honetan, formakuntza ez da betebeharreko baldintza.

Erakunde onuradun bakoitzak **gehienez 15.000 euro**.

ESKAERA EPEA: 2018ko ekainaren 20tik 08:00etan, 2018ko irailaren 14ra 13:30etan